

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko apirilaren 30a / 582. zenbakia



AROSTEGIKO ATEA XVI. MENDEKO ATE ERRENAZENTISTA ZAHARBERRITUKO DUTE

URTEAGA: DIPUTAZIOAK EGINGO DITU LANAK/6 • ELKARRIZKETA: ANE BERASATEGI/15


Telleria Baserriko Jaia

Arrasate

Keramikagileen

Topaketa

- zeramika erakusketak
- umeentzako tailerrak
- bideo emanaldia
- laba eraikuntza
- raku gava...




maiatzak

6-7-8

eta 9

-Antolatzen du:





-Babesleak:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

EL DIARIOVASCO



ATREBENTZIAEZPADA/ Nagusia izatean zertan lan egin nahiko zenuke?



AINHOA ASPIAZU
10 urte

Nik dendaren batean lan egin nahi nuke, dendari modura, gauzak saltzea asko gustatzen zaidalako. Ahal izanez gero fruta dena batean egingo nuke lan gustura.



MIKEL RETOLAZA
9 urte

Futbolari izan nahiko nuke. Diru asko irabaziko nuke-elako eta, gainera, famatua izango nintzatekeelako. Izan ere, jendea gainean izanez gero, jakingo nuke nola kendu.



LIBE SAN MIGEL
10 urte

Albaitari izan nahi nuke; animaliak asko gustatzen zaizkit eta gainera ez diet beldurrik. Asko ikasi behar den arren, gustatu egiten zait, eta egingo nuke gero horretan jarduteko.



JOXU AZKARATE
9 urte

Fabrikan batean lan egingo nuke gustura, tailerrean. Piezak muntatzen-edo jardungo nuke, eta gainera, ez dut uste horren lan gogorra denik, eta moldatuko nintzateke.



OIHANE ARAZKONAGA
10 urte

Irakasle izan nahiko nuke, opor asko edukitzen dituzte eta. Gure moduko ikasleak agoantatuko nituzke-ela pentsatzen dut, eta bestela haserre egin eta nahikoa.



JON ODRIOZOLA
10 urte

Pizzeria batean egingo nuke lan, pizzak asko gustatzen zaizkit eta. Inoiz osabarekin egin dut pizzarik, eta moldatuko nintzateke gertatzeko. Gero, jan egingo nituzke, gainera.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ABIADURA MOTELTZEKO BANDAK Abiadura moteltzeko bandak daude hainbat tokitan. Irakurle batek esan digunez, banda horiek legez kanpokoak dira, zirkulazio araudiak errepidean inolako trabarik ez egotea jasotzen duelako. Autoak zein gidariak kaltetzen dituztela gaineratu du. Berak esandakoaren arabera, badaude abiadura kontrolatzeko beste metodo batzuk, bandak jarri barik. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6

Lan baldintza hobeen alde

Mizpirualden azpi kontratuta diharduten Lendingeko langileek protestak egin dituzte.

KIROLA /10

Ibai Linazisoro eskiatzailea

Ibai Linazisoro gaztetxo irabazle izan da Mayencos txapelketan, Astungo eski estazioan.

KULTURA /15

Cool Panic eta Señor No

Cool Panic-ek *Soul on fire* diskoa aurkeztuko du gaur gaztetxean. Señor No taldeak ere joko du.

ASTEKO DATUA

6

HILABETEZ IZANGO DA AROSTEGIKO ATEA DONOSTIAN

Arostegi jauregiko ate errenazentista zaharberritzera eraman dute, Donostiara. Albayalde enpresak egingo ditu berritze lanak. Aurrekontua 28.700 eurokoa da.

BESTEKEKESANA

“

Torturak pairatu dituen pertsonaren bizipenak oso ondo aztertu ditu *Azurmendik Tortura en*

Euskal Herria liburuan, baita gizartearen erantzukizuna noraino iristen den ere”
IÑIGO ELKORO / Torturaren Aurkako Taldeko kidea 'Gara'/04-04-22

“

Arrazakeria leku guztietan ematen da, eta *Euskal Herria* ez da salbuespena.

Besterik da *Euskal Herria* nolakoa den. Hemen ez da eraso zuzenik ematen, ez da inor meskiten aurka antolatzen...**Alde horretatik bada ezberdintasunik. Baina bereizkeria berdin-berdin ematen da gure herrian”**
AGUSTIN UNZURRUNZAGA / Sos Arrazakeriako kidea 'Berria'/04-04-22

BERAIEK DIÑO E/ Jon Suinaga



Ona, polita eta merkea?

AHT (Abiadura Handiko Trena) inposatu nahi digute: Ona, polita eta merkea!

“Y” tunel batetik Angiozar bailaran azaltzen da. 2 km eta pikuan bailara zeharkatu ondoren, 850 m-ko tunelean sartzen da. Elorregi auzoan agertzen da berrito, 800 m-ko zatian errepidea zeharkatzeko zubi baten bidez eta gero beste tunelera Antzuolako norabidean.

Ona? AHTk hiri handietan kontzentrazioa bultzatzen du, nekazari eta landa bizimodua

marjinalatzen eta barruko eskualdeak pasealekuak izatera kondentatzen. Bestalde, flora eta faunari, milaka espezieri kalte egingo die. Kutsadura elektromagnetikoa eta akustikoa sekulakoak izango dira. Maila akustiko onargarriak gaindituko dira 500 m-ko korridorean.

Polita? 180 km-ko luzera, 230 km/h-ko abiadura, % 1,5eko malda, 3,2 km-ko bihurtze erradioa eta 14 m-ko zabalera. Honek guztiak trazatua orogra-

fiara egokitzea galarazten du. Hondamendia sekulakoa da. Ekosistema ugari kaltetuko dira. Paisaia inpaktua izugarria izango da. “Y”-ko 80 km lur azpitik doaz (Udalaitzen adibidez 14,5 km). Lurpeko ur korrante asko hondatuko dira. Bestalde, hondeaketaren

“Hondamendia sekulakoa da. Ekosistema ugari kaltetuko dira. Paisaia inpaktua izugarria izango da”

soberakinek (500 hektarea) dauden hondakindegia gainezkatzen dituzte.

Merkea? Proiektu faraoniko honen kostua 4.200 milioi eurotik gorakoa da. Zati handia diru publikoa izango da. Eta gainera Europar

Batasunak ez ditu onartu fondoak azpiegitura honetarako. Bestalde, abiadura handiak dakarren energiaren kontsumoa izugarria da, energia termiko eta nuklearraren kontsumoa bultzatzen. Txartelaren prezioa ere garestia izango da, hau dena amortizatzen.

Dauden trenbide-sareak zaharrak dira eta egokitu eta hobetu behar dira. Baina garbi dago “Y”-ko proiektua ez dela irtenbide egokia.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Iratzi Agirreazaldegia
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 30
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63

ZAPATUA, 1
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

DOMEKA, 2
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

ASTELEHENA, 3
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

MARTITZENA, 4
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUAZTENA, 5
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUENA, 6
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegarieta Domekak: 11:00.
Santa Marina Domekak: 11:00, 13:00. Zapatuak: 19:00.	San Lorentzo Zapatuak: 20:00.
Ubera Domekak: 10:30.	Angiozar Domekak: 11:30.
San Juan Domekak: 11:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 09:00.
Elorregi Domekak: 10:30.	Mizpirualde Lanegunak: 11:45.
URTE-MEZAK	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30.
Santa Marina Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.	San Lorentzo Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
San Pedro Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.	Uzarraga Domekak: 10:00.
	Elgeta Lanegunak: 09:00.
	San Lorentzo / San Juandik irteerak 07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
	Labegarieta / Olabarrenetik irteerak 07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
	GERALEKUAK: San Juan (Torunasa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
	GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugeriza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

OHARRAK

1965EAN JAIOTAKOAK
1965ean jaiotakoen afaria maiatzaren 1ean Txarran-txa jatetxean. Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan.

1968AN JAIOTAKOAK
1968an jaiotakoen afaria maiatzaren 15ean Antxoniatetxean. Egunean bertan Sagarpe elkartearen elkartuko dira, 19:30ean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontuan: 3035 0009 1800 9110 9183.

1963AN JAIOTAKOAK
1963an jaiotakoen afaria maiatzaren 15ean Azpeitxiatetxean. Izenematea (10 euro), Ariznoa tabernan.

1958AN JAIOTAKOAK
1958an jaiotakoen afaria maiatzaren 15ean Antxonin. Afari egunean bertan elkartuko dira, 20:00etan. Izenematea: 15 euro.

1927AN JAIOTAKOAK
1927an jaiotakoen bazkaria maiatzaren 22an Zumelagajatetxean, 14:00etan. Izenematea (15 euro) Euskadiko Kutxan, hilaren 17ra arte.

BERGARA AURRERA: ZOZKETA
Bergara Aurrerak Erramu Zapatuan zozketatuko mariskoa 3.947 zenbakia-
rendako izan zen. Oñatiko hiru gazte izan ziren sarituak: Txinparta, Imanol eta Txispi. Partaide guztiei eskerrak eman nahi dizkie Bergara Aurrerak.

JARDUNENAGENDA

OLINPIADAK
Jardun elkarteak antolatuta, 9-12 urte bitarteko gaztetxoendako olinpiadak izango dira Bergaran maiatzaren 15etik ekainaren 19ra. Izenematea herriko ikastetxeetan egiteko aukera dago, maiatzaren 7ra arte.

URBANOENORDUTEGIA

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Asier Garitano, Cartagena futbol taldean golegile

Asier Garitano bergarar futbolaria elkarrizketatu genuen 1994ko maiatzean. 2. B mailako Cartagena taldearekin ligako azken partidua jokatu berria zuen. Sailkapenean seigarren tokian geratu ziren, eta gutxigatik ez ziren sailkatu igoera play-offa jokatzeko. Garitanok 12 gol egin zituen ligan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Zurrutero”



Edale ona.
— Zurruteru majua eindda dago.

GORKA ORTEGA

ASTEKOPELIKULAK

‘OCÉANOS DE FUEGO’

ZUZENDARIA: JOE JOHNSTON. AKTOREAK: VIGGO MORTENSEN.

HARIA. Xeke arabiar batek Frank T. Hopkins cowboya Su Ozeanoa izeneko lasterketan parte hartzera gonbidatuko du...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan. 19:30ean 22:30ean; domekan, 17:00etan. 19:30ean 22:15ean eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



HAUGIROA!

MINIMOA
Domeka, 25 **3 °C**

MAXIMOA
Astelehena, 26 **24 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **34,3 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	23 °C	10 °C	15,6 l/m ²
Eguena, 22	15 °C	10 °C	1,5 l/m ²
Egubakoitza, 23	16 °C	10 °C	- l/m ²
Zapatua, 24	20 °C	5 °C	- l/m ²
Domeka, 25	22 °C	3 °C	- l/m ²
Astelehena, 26	24 °C	3 °C	- l/m ²
Martitzena, 27	20 °C	5 °C	17,2 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

‘EL REGRESO’

ZUZENDARIA: ANDREI ZVYAGINTSEV. AKTOREAK: VLADIMIR GARIN.

HARIA. Errusiar film honek harre-ra beroa jaso zuen iaz nazioarteko hainbat jaialditan. Besteak beste, Venezian saritu zuten. Bi anaiaren inguruko gorabeherak azaltzen zaizkigu: haien bizitza goitik behera aldatuko da, urtetan desagertuta egon den beraien aita azaltzen denean.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, maiatzaren 6an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

OREKA
PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO
ETA BIKOTENKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antsietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 676 617 055
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725
AURRERA ERAIKINA
Urtzaile 1. solairua, EIBAR



Besteak beste, Katabia kaleko urbanizazio proiektuaren baldintza plegua onartu zuten astelehenean.

Herritarren Zerrenda taldeak sinadura bilketari ekin dio

E.M.

Herritarren Zerrenda-HZ taldeak Europako Hauteskundeei begira sinadura bilketa deitu du. Maiatzaren 8ra bitartean 40.000 sinadura batu nahi dituzte, Euskal Herriak kandidatura nazionala izateko eskubidea aldarrikatzeko helburuarekin. Bergaran, udaletxean dago sinatzeko aukera,

aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 11:00etara. Martitzen, eguazten eta egubakoitzetan, arratsaldez ere bai, 17:30etik 19:30era.

ERROLDA IKUSGAI

Bestalde, ekainaren 13an botoa emateko eskubidea duten herritarren zerrenda udaletxean dago ikusgai maiatzaren 3ra arte.



Ekainaren 13ko Europako hauteskundeei begira deitu dute sinadura bilketa.

POLITIKA/ Udal Artxiboko Iturbe fondoa Irargiko Badator zerbitzuan zabalduko da

Udalbatzak bat egin zuen asteleheneko ohiko bileran

EDU MENDIBIL

Hiru puntutan izan ezik, alderdi guztiak adostasuna azaldu zuten asteleheneko ohiko batzarrean aztertutakoa onartzerakoan. Eskaera eta galderetan, berriz, Bergara Aurrerak Udalaren gestioan parte hartzeko eskaera egin zion Gallastegi alkateari.

Hemezortzi puntu aztergai izan zituen udalbatzak astelehenean eta hiru izan ezik, guztiak aho batez onartu ziren. Andres Diez Ezker Batuko zinegotzia abstenitu egin zen hiru gaietan. Horietako bat Katabia kaleko urbanizazio proiektuaren eta baldintzen pleguaren onarpena izan zen. Kontrata bidez obra egiteko aurrekontua 134.002 euro da,

Andoni Sistiaga arkitektoaren proiektuan oinarrituta, eta lanek hiru hilabete iraungo dute.

Bestalde, Alvaro Perez de Amezaga arkitektoak Agorrosin kirol eremuko lehen faseko lehen zatiaren proiektu tekniko egi-teagatik aurkeztutako faktura (5.000 euro) ere onartu zen. Puntu honetan ere abstenitu egin zen Ezker Batua. Gainerako zinegotzietatik baiezkoa eman zuten.

Bestalde, udalbatzak aho batez onartu zuen Udal Artxiboko Iturbe fondoa Irargiren Badator sisteman sartzeko baimena ematea. Beraz, Irargiren webgunean (www.irargi.org) eta Badator zerbitzuaren bitartez zabalduko da Iturbe fondoa, Euskal Herriko eta Euskal Herriari buruzko artxibo-fondoetako informazioarekin batera.

BERGARA AURRERAREN GALDERAK

Erregu eta galderen tartean, Mikel Egurennek eta Jesus Mari Garitanok, Bergara Aurrera taldearen izenean, hainbat galdera planteatu zituzten. Debagoieneko tranbiak ingurumenean izango lukeen eraginaren aurrean kezka azaldu zuten eta alkateari udal aurrekontuaren gainean galdetu zioten. Gallastegi alkateak aurrekontuen gaia atzeratzen ari dela, baina behar den momentuan eman beharreko azalpenak emango dituela erantzun zien. Bestalde, udaletxeko gestioan parte hartzeko batzordeetan parte hartzea aldarrikatu zuen Bergara Aurrerak. Era berean, aurrerantzean, bilkura guztietan hitza hartzeko eskaera egin zuten, hainbat aldiz gertatutako gaizki ulertuak saihesteko.

LABUR

Peñagarikano eta Amuriza bertsolariekin auzo bazkaria Elorregin, jaiak ospatzeko

Bihar, zapatua, auzo bazkaria izango da Elorregin. Bertan izango dira Angel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza bertsolariak, besteak beste. Domekan, berriz, Alai Taldeak lagundutako meza nagusia izango da 10:30ean, Moises Aspiazu dantza taldearen saioa jarraian eta, azkenik, pilota partiduak.

Jardun elkarteak maiatzaren 9an Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du

Jardun Euskara Elkarteak maiatzaren 9an Senperen ospatuko den Herri Urrats jaira joateko autobusa antolatu du. Izenematea maiatzaren 6ra arte izango da zabalik Jardunen bulegoan, Errotalde jauregian. Bazkideendako autobus txartelak 7 eurotan salgai jarriko dituzte eta bazkide ez direnenendako, 9 eurotan.

Euskal Jaia egunean etxean, bazkaltzeko, haurrak jasotzeko gertu daudenei deialdia

Maiatzaren 16an Bergaran ospatuko den Haurren Euskal Jaia dela eta, egun horretan bazkaltzeko, etxean haurrak jasotzeko gertu dauden herritarrek kultura etxean (943 77 91 60) eman dezakete izena. Etxe bakoitzean gutxienez bi haur hartzea gomendatzen dute antolatzaileek. Izenematea maiatzaren 3ra arte dago zabalik.

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra • Asegurua: LAGUN-ARO



Lendingeko langileek elkarretaratzeak egin dituzte astean zehar San Martin plazan.

LANA/ Erresidentzian azpikontratutako langileek hitzarmen duina aldarrikatzen dute

Mizpirualdeko Lendingeko langileen protestak astean

E.M.

Mizpirualde egoitzan Lending Service SL enpresak kontratatutako langileek hitzarmen duin baten aldeko elkarretaratzeak egin dituzte astean zehar. Gaur, egubakoitza, langileen ordezkariak Lendingeko arduradunekin egotekoak ziren berriz ere.

Lending enpresaren bitartez 54 lagun dabilta Mizpirualde egoitzan lanean. Alaitz Martin ELAko ordezkariaren arabera, bi eskaera nagusi egin dituzte langileek: alde batetik, Mizpirualdeko langile guztien lan baldintzak parekatzea eta bestetik, soldata igoera, klinika laguntzaileen kasuan batez ere.

Nahiz eta Mizpirualdeko bestelako langileen funtzio berberak egin, Lendingek kontratatutako langileek gutxiago irabazten dutela salatu dute LAB eta ELA sindikatuek: 6.100 euro gutxiago klinika laguntzaileen eta harerako langileen kasuan, 4.800 euro gutxiago sukaldeko pertsonalaren kasuan eta 2.700 euro gutxiago garbitzaileen kasuan. Bestalde, Lendingeko langileek salatu dutenez, "ordutegi eta lanaldi gogorrenak egiten ditugu, 126 ordu gehiago batez beste. Horrez gain, egoitzako bertako langileen opor zein bajak ordezkatzera behartuta gaude, baita asteburu zein jaiegunetan lan egitera ere".

Gaur egun Lendingeko langileez aparte, Mizpirualdeko bes-

te 21 langile eta Bergarako Udaleko beste bi langile dira lanean erresidentzian.

ELKARRETARATZEAK

Esan bezala, ELA eta LAB sindikatuek deituta, Lendingeko langileek elkarretaratzeak egin dituzte aste barruan San Martin plazan, egunero, 18:15etik 18:45era. Lendingeko arduradunekin hainbat bilera izan ostean, hitzarmena sinatzeko negoziatioak gelditu daude. Gaur, egubakoitza, langileen ordezkariak eta Lendingeko arduradunak elkartzekoak ziren. Negozioak aurrera egin ezean, mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi dute langileen ordezkariak.

Urteagako lanak bere gain hartuko ditu Diputazioak

E.M.

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak astelehenean Bergaran adierazitakoaren arabera, datorren astean adjudikatu dituzte Urteagako arazoa konpontzeko lanak. Jakingo duzenez, Bergaratik Antzuolara joateko errepide zaharra itxita dago azaroa ezker, Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ostean. 2003ko maiatzean ere errepidea itxi eta Urteaga 29ko bizilagunak atera egin behar izan zituzten arazo beragatik.

Diputazioak bere gain hartuko ditu mendiari eusteko lanak, bost milioi euroko aurrekontuarekin. Lanok hiru hilabete barru hasiko dira, eta beste lau hilabete beharko dituzte horiek bukatzeko. Beraz, urte amaierarako arazoa konponduta egotea espero du diputatuak. Gonzalez de Txabarrik gogoratu zuenez, lan horiek ez lukete Diputazioaren ardura izan behar: "Lerradurak gertatutako lur horiek jabeak dituzte, asegoruak ere tartean

daude, eta izan dira arazo horretan eragina izan dezaketen lanak, erreka bideratzeko lanak edo ekialdeko saihebidetakoak. Edozein modutan, mendiari eusteko eta errepidea zabaltzeko lanei aurre egingo die Diputazioak".

FORU OGASUNEKO EGOITZA BERRIA

Adierazpenok astelehenean Bergaran egin zituen diputatu nagusiak, Foru Ogasuneko egoitza berriaren inaugurazioan. Toki Eder plazako 5. zenbakira pasa da lokal berria. Gonzalez de Txabarriekin batera, Juan Jose Muxika finantza diputatua eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren, besteak beste.

Errenta aitortpena egiteko epea ekainaren 25era arte izango da zabalik. Bergarako egoitza astelehenean egubakoitzera bitartean dago zabalik, 08:00etatik 14:30ak arte. Hala ere, errenta aitortpena egiteko, aurrez telefonoz txanda hartu behar da, 902 10 01 40 zenbakian. Argibide gehiago, www.gipuzkoa.net/ogasuna web orrian.



Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Victoriano Gallastegi, astelehenean Bergaran.



Errepidea hobetuko dute San Juanen

San Juango errepidea hobetzeko lanak egingo ditu Diputazioak udan. Hain zuzen ere, GI-2632 errepidean, autobidearen zubitik, behealdetik hasita Ubera auzora doan errepide zatian —hiru kilometro pasatxo du tartea— egingo dituzte hobekuntza lanak. Aipatutako tartea egoera txarrean dago aspaldi eta kexa ugari izan dira.

Lanok abuztuan hasia aurreikusten du Diputazioak, eta lau hilabete beharko dira lanak amaitzeko. Aurrekontua 600.000 euro ingurukoa da.

LABUR

'Plazatik gaztetxera' txapelketako bertso saioa izango da maiatzaren 7an gaztetxean

Plazatik gaztetxera txapelketako saioa izango da datorren egubakoitzean, maiatzaren 7an, Bergarako gaztetxean. Gorka Lazkano, Andere Arriolabengoa, Peru Madalena, Jokin Labaien, Xabier Astigarraga eta Ander Lizarralde arituko dira bertsoetan. Aurretik, afaria izango da gaztetxean, 21:00etan.

Afarirako izenematea, Arrano, Pol-Pol edo gaztetxean bertan egin daiteke.

Martitzeneko ilargi eklipsea ikustera joateko Gorrara irteera egingo du Ilatargi taldeak

Martitzenean, maiatzaren 4an, izango den ilargi eklipsea ikustera joateko Gorrara irteera antolatu du Debagoieneko Ilatargi astronomia taldeak. Autobus geltokian elkartuko dira, 20:15ean. Hantxe elkartuko dira nahi duten guztiak, eta ondoren, Gorrara abiatuko dira. Iluntzean hasiko da eta gauerdia arte iraungo du maiatzaren 4ko eklipseak.

Datozen bi hilabeteotan kometa asko ikusteko aukera egongo dela adierazi dute Ilatargi taldeko ordezkariak.

ARTEA/ Arostegin erakusketa aretoa zabaltzen dutenean, XVI. mendeko atea areto barruan jarriko dute ikusgai eta sarreran ate berria jarriko dute

Arostegi jauregiko ate errenazentista zaharberritzera eramán dute, Donostiara

EDU MENDIBIL

Arostegiko atea Donostiara eramán dute zaharberritzera. Joan zen eguenean, hilaren 22an, kendu zuten atea jauregiko sarreratik. Donostiako Albayalde enpresa arduratu da atea berritzeaz. Aipatutako lanek 28.700 euro inguruko aurrekontua daukate.

Bi ordu eta erdi luze eman zituzten Albayalde kontratatutako sei langileek atea jauregiko sarreratik kentzen. Ateak 600 kilo inguruko pisua dauka eta lanok ikusmina sortu zuten goizetik Barrenkalean zenbiltzan herritarren artean. Ateko bi orriak kendu ondoren, Donostiara eramán zuten Arostegiko ate errenazentista. Gutxienez sei hilabetez edukiko dute atea Albayalde enpresak Donostiako Egia auzoan duen tailerrean.

ERLIEBEAK EGOERA TXARREAN


Arostegiko atea balio handiko artelana da, XVI. mendekoa. Xabier Aranburu udal museologoaren arabera, "Gipuzkoan ez dago garai horretako horrelako aterik. Errenazimenduko artelan bikaina da, balio handiko erliebeak dituena. Tamalez, kalera begira egotean, nahiko hondatu da, beheko partean, batez ere, eta

horregatik hartu da zaharberritzeko erabakia. Landutako erliebeak galtzen hasiak ziren eta berritzeko premia zegoen, gure ondarea ez galtzeko. Horregatik, Arostegin erakusketa aretoa zabaltzen denean, areto barruan egongo da ikusgai atea, hobeto kontserbatzeko eta jendeak estimatzeko aukera izan dezan".

ATEAREN GAINEKO BI AIPAMEN

Arostegiko atea 1533. urtearen ingurukoa da eta haren gaineko idatziak ugariak dira. Imanol Sorondo apaizaren arabera, "Pedro Arostegik Pedro Azkara-te harginarekin tratua egin zuen 1531ko uztailaren 4an, etxe aurrea landutako harriz bukatzeko; gainaldeko errematea, harri urdinez, atera behar zuen, txapel baten modura. Tratua 10.000 marabeditan, hiru zatitan ematekoa, izenpetu zuten. Bestalde, sarrerako atea eta leihoak egiteko, berriz, Arostegik Bergarako zur langile zen Andres Elosu kontratatu zuen. Tratua 1533. urteko martxoaren 28an egin zen, urrezko 42 dukaten truke".

Bestalde, Jesus Gil Massa historiagileak atearen balio artistikoa goraipatzen du *Urbanismo y arquitectura civil en Bergara* izenburuko liburuan. Zera aipatzen du Gil Massak: "Atearen orri bakoitzak 24 panel ditu eta balaus-



Bi langile Barrenkalea 7ko Arostegi jauregiko atea kentzeko lanetan, eguenean.

tre lirain batek lotzen ditu, eta bertan Cefiroren erretratu bat ikus daiteke. Panelen aberastasun dekoratzailea ezohikoa da, eta plateresko estiloko motiboen erreperitorio ederra daukate: animalia bihurtzen diren mamuak, atzaparrak eta buruak dituzten landareak, haurrak irudikatzen dituzten medailoi dotoreak, motibo heraldikoak... Guztia diseinu bikainez landutakoa da eta kalitate handiz egindakoa, denbora guzti honetan atearen taxua eta dotorezia mantendu direlako. Alderdi guztietatik ikusita, ezohiko artelana da".

ERAKUSKETA ARETOA, UDAZKENERAKO

Arostegiko erakusketa aretoa udazkenerako zabalik egotea da Udalaren asmoa. Erakusketa aretoaren proiektua Iñaki Berasategi, Elisabet Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek eginikoa da eta aurrekontua 284.469 euro ingurukoa da. Lanak berehala hasiko dira.

Esan bezala, Arostegiko ate errenazentista areto barruan egongo da ikusgai etorkizunean, horma-hobi baten barruan sartuta egongo balitz bezala. Sarreran, bestalde, ate berria jartzea aurreikusten da proiektuan. Hain zuzen ere, sarrerako atea egurrez eta metalez egindakoa izango da.

ELKARRIZKETA

JON BERASAIN/ALBAYALDE ENPRESAKO ZAHARBERRITZAILEA

"Atea dezente hondatu da azken urteotan"

E.M.

Donostiako Albayalde enpresak egingo ditu Arostegiko atea berritzeko lanak. Jon Berasain zaharberritzailea Bergaran izan zen aurreko eguenean, Arostegiko atea kentzeko lanak gertutik jarraitzen.

Zein prozesu jarraituko duzue Arostegiko atea berritzeko?

Lehenbizi atearen patologia ezagutu beharra daukagu eta horretarako txosten sakona egingo dugu. Egin beharreko lana zehazteko argazkiak, datu teknikoak eta bestelako informazioa baliagarria izango zaigu. Esaterako, atearen egurraren ezaugarriak edo tailatutako elementuek zer irudikatzen duten jakitea ezinbestekoa da. Ondoren, atea ondo garbitu ondoren, sendotze lanak

egingo ditugu, ahuldutako gunetan erretxina injektatuz. Era berean, etorkizunean atea behar den moduan kontserbatzeko, ahal den neurrian narriadura elementuen eragina ezabatu behar dugu; xilogafoak, adibidez. Eta egurra biluztean, argizariarekin eta bernizarekin aberastuko dugu. Azken baten, zirujauen antzeko lanak egingo ditugu, nahiz eta gu bizigabeko gorpuztekin lan egiten dugun.

Zein izan da zuen hasierako diagnostikoa?

"Arostegiko atea balio handikoa da, eta berreskuratzeko zirujauen antzeko lana egingo dugu"

Atearen goialdeko zatia behealdekoa baino askoz hobeto mantendu da; atea kalera egotean, euriak eta bestelako elementuek beheko partean eragin dute gehien. Hainbat taila guztiz desagertu dira. Azken 10 urteotan atearen narriadura nabariagoa izan da. Pena da, balio handiko artelana da eta horrelako gutxidago.

Orokorrean, Euskal Herrian, ondo zaintzen al dugu kultur ondarea?

Oraindik ere lan asko egiteko dago. Ondarea babestea egin barik dagoen zereginetako bat da. Poliki-poliki bagoaz arazo horren gaineko kontzientzia hartzen, eta ez da gutxi, herentzian jaso ditugun altxorrek kontserbatzea eta atzetik datozenei modu onean erakustea gure esku dago eta. Kontzientziazio horretan sakontzeko, dirua eta planifikazio ona ere behar-beharrezkoak izango dira etorkizunean.



Jon Berasain Arostegi jauregiko zaharberritzailea.

E.M.


POL-POLEKO BETERANOAK NAFARROA ALDEAN



Pol-Poleko mendizale bete-
noek Belatera eta Iruritar
irteera egin zuten domekan,
apirilaren 25ean. Nafarroa aldera
35 lagun joan ziren, eta, eguraldia
lagun, primeran ibili ziren. Mendi
buelta ederra eman, lagunartean
bazkaldu eta arratsaldean
Iruritan bueltatxo eman ondo-
ren, herrira itzuli ziren. Alboko
argazkia Saioako mendatean
(1.419 m.) aterata dago, eta
irteeran parte hartu zuten
hainbat lagun ageri dira. Hurren-
go irteera maiatzaren 16an
egingo dute, Ezkarai aldera.

ELIZAMENDIKO AMA BIRJINA, DONOSTIAN IKUSGAI

Donostiako Elizbarrutiko Museoan Andra Mari
ama birjinen tailen erakusketa ikusgai jarri
dute. Guztira, 40 taila bildu dituzte eta
guztietan ama birjina Jesus haurtxoarekin agertzen
da. XII. eta XVII. mende bitarteko tailak dira eta
tarteetan Angiozarko Elizamendiko ama birjina dago.
XVI. mendeko taila gotikoa da Elizamendikoa.
Erakusketa ekainaren 6ra arte egongo da ikusgai.



ARITZETA ABESTZAKOAK VALENTZIAN IZAN DIRA

Aritzeta abesbatzako kideak Valentzian izan ziren
Aste Santuan, eta ondoko bi argazki hauek
ekarri dizkigute. Lliriako Primitiva taldekoekin
izandako hartu-emanen ondorioz, bi kontzertu eman
zituenez Aritzeta Valentzian: alde batetik, Erdi Aroko
meskita baten gainean eraikitako San Maria elizan,
Iglesia La Sangre izenarekin ezagutzen dena, eta,
bestetik, Banda Primitivaren antzokian, Llirian bertan
(argazkietan). Hango Gazteen Bandarekin batera

emanaldia egin zuen Aritzeta. Besteak beste,
Albufera, Valentziako Zientzien eta Arteen Hiria eta,
bueltan, Teruel ere bisitatu zituzten Aritzeta-koek.
Beraiekin batera Juanjo Arrieta Udaleko zinegotzia
izan zen Valentzian. Harrera ezin hobea egin zieten eta
Lliriako lagunak harrituta utzi omen zituzten, valen-
tziarrek ondo dakite-eta a capella kantatzeak duen
zailtasuna. Pazkoetan emango duten kontzertu
berezia prestatzen dihardute orain Aritzeta-koek.



MINGAINARITIRAKA



Sonia
De la Maza

EDEL DENDAKOA

Enpresa ikasketak egin zituen Soniak, eta iazko uztailetik dihardu Edelen lanean, familiaren negozioan. Ia 30 urte ditu oihal eta tapiz dendak. Denetik saltzen dute hantxe: gortinak, izarak, oherako estalkiak, alfonbrak...

Zeure ohean zelako estalkia duzu?

Krema koloreko estalki bat; moderno samarra da, baina ez oso ausarta.

Izarak ala nordikoa nahiago?

Nordikoa; askoz erosoagoa da, bai ohea egiteko, bai lotarako. Ez daukazu batere pisurik gainean, eta ohea egitea askoz errazagoa da.

Estilo klasikoa ala modernoa gustatzen zaizu gehiago?

Niri gehiago gustatzen zait modernoa eta senarrari klasikoa; hortaz, biak konbinatzen saiatzen gara.

Betiko gortinak ala gaur egun boladan dauden estoreak?

Denetik daukat etxean; hori, leihoaren, etxearen edo espazioaren arabera aukeratu behar izaten da.

Egunero izango duzu etxera dendako zerbait eramateko tentazioa, ezta?

Tentazioa, bai, askotan, batez ere, gauza berriak iristen direnean; baina dena ezin da etxera eramanez.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Politena da jendearekin hartu-emanetan zabiltzala; harreman hori izatea da laneko gauzarik onena.

Eta gutxien?

Jendea gustura geratzen ez denean, egia esan, gaizki pasatzen da; baina, normalean, ez da horrelakorik gertatzen.

Lanez aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?

Enpresa ikasketak egin ditudanez, enpresaren baten, informatikarekin edo marketinarekin lotutako lanpostu baten. Dena dela, oso gustura nabil dendan.

Liburu bat?

Toti Martinez de Lezearen *La comunera*.

Urtaro bat?

Udaberria, eguraldi onarekin; domekan egin zuen moduko eguraldiarekin.

Ametz bat?

Lanik egin gabe bizi ahal izateko adina diru izatea, eta lanik egin gabe bizitzea.

AINTZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

DANIELA DIMITROVA

32 URTE / BULGARIARRA / ORAIN DELA IA BI URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Asko gustatzen zait jende euskalduna; gure antzerakoak zarete: irekiak eta atseginak”

AINTZANE IRIZAR

Urte eta bederatzir hilabete dira Daniela Bergarara bizi izatera etorri zela. Lehenengo, Krasimir bere senarra etorri zen; handik gutxira, berriz, Daniela eta bere alaba.

Gustura bizi ei da hemen, baina, era berean, herrimina ere badu; beno, herrimina baino gehiago, gurasoen eta alabaren falta sumatzen du. Izan ere, hasieran elkarrekin etorri ziren arren, orain Bulgarian bizi da hamaita urteko alaba, aiton-amonekin.

Iritsi zenetik laguntza handia izan zutela kontatu digu: “Cari-tasek asko lagundu zigun; Paulik, batez ere. Izugarri eskertzen diogu eskaini zigun laguntasuna, bai Pauliri eta baita denbora honetan guztian lagundu diguten guztiei ere”, azaldu digu.

“Argi daukat hemengo egonaldia urte batzuetako kontua besterik ez dela”

Bulgarian musika irakaslea zen arren, pertsona nagusiak zaintzen lan egiten du Danielak hemen. Senarrak, berriz, tailer baten.

DIRU PIXKA BAT IRABAZTERA

Danielak azaldu digunez, hona etortzeko arrazoia ez zen izan Bulgarian lanik edo dirurik ez izatea: “Han ere bizi gintezkeen, baina diru gehiago irabazi nahi

genuen. Orain, hobera doa Bulgarian egoera, baina gainbeheran egon da urtetan”, adierazi digu.

Daniela txikia zenean oso ondo bizi ei ziren, baina pixkanaka okerrera egin zuen egoerak Bulgarian.

BERGARA ASKO GUSTATZEN ZAIE

Hasieratik asko gustatu zitzairen Bergara: “Gure aita diplomatikoa zen, eta hainbat hiritan bizi izandakoa naiz; sekula herri txiki baten bizi barik nengoen, eta asko gustatzen zait hemengo lasaitasuna eta dagoen segurtasuna”, diosku. Dena gertu dagoela eta kalean lasai ibil zaitezkeela ere esan digu.

Euskaldunok bulgariarren antzerakoak ei gara: “Gure oso antzerakoak zarete: irekiak, atseginak eta jatorrak”. Ez ei dute sekula arazorik izan, hasieratik oso ondo hartu ei dituzte Euskal Herrian. Zera adierazi digu: “Badituzte ezagun batzuk Espainian bizi direnak, Andaluzian, hain zuzen ere, eta gauzak bestelakoak ei dira; badi-rudi hemen askoz hobeto hartzen dituzuela kanpotarrak”, diosku.

Gainera, jendearekin harremanak egiteko batere arazorik ez duela kontatu digu: “Ezagun mordo daukat Bergaran, eta baita lagun batzuk ere; izan ere, ni naizen moduko berritsua izanda...”

Gazteleraz nahiko ondo egiten du Danielak, baina hobeto ikasi nahi du. Datorren urtean, berriz, euskara ikasten hasteko asmoa dauka.

BULGARIARA ITZULI NAHI DU

Hala ere, Danielak argi dauka Bulgariara itzuliko dela; ziur dago hemengo egonaldia urte batzuetako kontua besterik ez dela izango. Krasimir bere senarrak, baina, ez dauka gauzak hain argi: “Nire senarrak denbora luzeagoz geratu nahi du hemen; nik, berriz, urte gutxi batzuk barru hara itzuli nahiko nuke”.



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



ARTXIBOA

Soraluzen, Elgetan, Antzuolan eta Bergaran jaio edo bizi direnek izango dute txapelketan parte hartzeko aukera.

FUTBOLA

Maiatzaren 21ean hasiko dira Ipintzako Txapelketa jokatzeko

Adin mugarik gabekoek zelai osoan jokatuko dute eta gainontzekoek erdian, zabaletara

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zabalik dago Ipintzako Futbol Txapelketan izena emateko epea. Interesatuak maiatzaren 7rako osatu beharko dituzte taldeak, eta torneoari maiatzaren 20an ekingo diete jokalariek, hainbat mailatan.

Adin mugarik gabeko txapelketan, Soraluzen, Elgetan, Antzuolan edo Bergaran jaio edo bizi eta 16 urtetik gora duen edozeinek hartu ahal izango du parte.

Izena emateko 14 eta 21 lagun arteko taldea osatu eta jokalariek bakoitzeko hamar euro ordaindu

behar da. Txapelketa maiatzaren 22an hasiko bada ere, ordezkariekin bilera egingo da, maiatzaren 13an, 20:00etan, Agorrosinen.

EMAKUMEAK ETA NAGUSIAK

Nagusien mailan 30 urtetik gorakoek jardungo dute eta gehienek hamar talde onartuko dira. Hauen kasuan, izena emateko epea maiatzaren 10ean amaituko da. Zelaian zazpi jokalarik egongo badira ere, taldea hamar eta 13 jokalarik artekoa izango da eta bakoitzeko ordaindu beharrekoa 12 euro. Hauendako txapelketa maiatzaren 20an hasiko da eta bilera maiatzaren 13an egingo dute.

Emakumeetan, senior, kadete eta alebin mailak bereiztuko dituzte. Hauek ere 10 eta 13 jokalarik arteko taldeak osatuko dituzte, zelaian zazpi egongo badira ere.

Izena emateko azken eguna maiatzaren 7a izango da. Seniorek hamar euro ordainduko dituzte, kadete mailakoek sei eta alebin mailakoek hiru.

Neskek maiatzaren 21ean hasiko dute txapelketa, eta aurrez egin beharreko bilera maiatzaren 13an izango da.

Txapelketaren gaineko argibideak nahi dituztenek Ipintzako bulegoetara joan daitezke, eta baldintzen berri jasoko dute.

Frontenis txapelketan izena emateko epea zabalik

I.A.

Datorren maiatzaren 22an ipiniko da abian Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta VI. Frontenis Txapelketa. Izena eman nahi duten bikoteek maiatzaren 14ra arte izango dute horretarako.

Debagoieneko hainbat pilotalekutan frontenisean jokatzen duten kirolariei zuzendutako txapelketa da hau, eta aurtengoa torneoaren VI. edizioa da.

Binaka jokatuko dute parte-hartzaileek eta jokalariek bakoitzeko ordaindu beharreko prezioa honako hau da: 12 euro Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako bazkideek eta 15 euro gainontzeko guztiek.

Izena emateko Bergarako udaltxerara, Udak Kirol Zerbitzura, jo beharko da edo bertara telefonoz deitu: 943 77 91 67. Posta elektronikoki bidez ere egin daiteke ins-


kripzioa, kirolak@bergara.net helbidean. Izena emateko azken eguna maiatzaren 14a da.

DEBAGOIENEN ZIRKUITURAKO PUNTUAK

Txapelketaren lehenengo fasea liga erara jokatuko da; bigarrena, berriz, kanporaketa bidez. Hau da, behin sailkapena amaituta final-laurdenak, finalerdia eta finala izango dira jokoan.

Txapelketa maiatzaren 22an hasiko da eta partidu guztiak Angiozarko Arbiaska pilotalekutan jokatuko dira, zapatuetan.

Torneo hau Debagoieneko Frontenis Txapelketarako puntuagarria da. Bergarako txapelketak 12 puntu jasoko dituzte, bigarren bikoteak 10 puntu, hirugarrenak bederatzi eta laugarrenak zortzi. Final-laurdenetara sailkatzen direnek, berriz, sei puntu eskuratuko dituzte. Zirkuituko gainontzeko txapelketak Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan dira.



ARTXIBOA

Txapelketako partidu guztiak Angiozarren jokatuko dira.

Ibai Linazisoro irabazle Mayencos eski txapelketan

I.A.

Eski denboraldia amaitu da, eta batzundako ez da nolana nahikoa izan. Ibai Linazisoro gazteak Astungo estazioan jokatutako Mayencos klubeko eski txapelketan lehen postua eskuratu zuen.

Aste Santua amaitzean itxi zituzten eski estazio gehienak. Aurten hainbeste elur egin duenez, nonahi eskiatzeko nahikoa aukera izan da.

Bergaran bertan badaude elur eta kirol horren zaleak, eta baita txapelketetan jarduten duten hainbat ere.

Horietako bat da, hain zuzen ere, Ibai Linazisoro. Jacako Mayencos taldearekin eskiatzen du berak, eta ekipo honek antolatutako denboraldi amaierako txapelketan mini-alebinen mailan lehenengo postua eskuratu zuen bergararrak.

PODIUMEAN

Bestalde, klub hau bera ordezkatzuz, Astunen I. Tole Pantoja txapelketan hartu zuen parte Linazisorok. Parte hartu ez ezik, irabazi ere egin zuen txapelketako lehen jardunaldiko proba eta sailkapen orokorrean, berriz, bigarren tokian igo zen txapelketako podiumera.

Gainera, kontuan hartu behar da proba honetan alebinen mailan hartu zuela parte, bera mini-alebina izan arren. Beraz, nagusiagoekin lehiatu beharra izan zuen Ibaik, eta hala ere, hauen arian gailendu egin zen.

Erraldoi proba delakoa izan zen Ibai Linazisorok egin zuen eski lasterketa. Eslalom proba baino askoz azkarragoa da, eta distantzian luzeagoa.

Aurtengo denboraldian emaitza onak lortu ostean, datorrenean ere lehiaketetan ibiliko da Linazisoro, eta bere mailakoekin jardunda podiumean agian gorengo mailan ikusteko aukera izango da.



BARRO

Ibai Linazisorok Astun estazioan egindako probetan hartu zuen parte.

Bost futbol taldek jokatuko dituzte partiduak asteburuan etxean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergara Kirol Elkarteko bost futbol taldek jardungo dute etxean asteburu honetan: preferente, erregional, gazte eta infantil mailetak mutilek eta zortziko taldea osatzen duten neskek. Lau partidu zapatuan jokatu dira eta bosgarrena domekan.

Denboraldia aurrera doa eta Bergara Kirol Elkarteko futbol taldeak pixkanaka azken partiduetara iristen ari dira. Datorren jardunaldian bost partidu jokatu dira etxean.

Bihar, zapatuan, maiatzaren lein, lau partidu ikusteko aukera izango da. Goizean, 10:00etan, lehen mailako infantilek jokatu dute Ipintzan Debako Amakak Bat taldearen kontra. Igoera fasea jokatzen dihardute, baina jadanik ez dute mailaz igotzeko aukerarik. Hala ere, fase horretan sartzea nahikoa lorpen bada Gorka Larrañagaren mutilendako. Izan ere, gainontzeko taldeetako jokalariek gehienak nagusiagoak dira. Debarrak aurkari gogorak dira, hori adierazten du sailkapenean bergararren aurretik joateak, baina ahal dutena egingo dute etxeok.



ARTXIBOA

Infantil mailakoek iguera fasean dihardute, baina ez dute igotzeko aukerarik.

Zapatu goizean, 12:00etan jokatu dutenak lehen mailako gazteak dira. Hauek denboraldia amaitzean mailaz jaitsiko dira.

ZAPATU ARRATSALDEAN BI PARTIDU
Preferente mailakoek Ordizia-koak izango dituzte aurrez aurre Agorrosin 17:00etan. Zapatuan Aloñari irabazi ostean (1-2) sailkapenean erdialdean daude mahoneroak, 10. tokian, 45 punturekin. Ordizia sailkapeneko

behealdean dagoenez, irabazteko asmoz irtengo dira zelaira bergararrak.

Erregional mailakoek 19:00etan dute hitzordua Elgoibarko Pedrusko taldearekin. Denboraldi txukuna egin ostean, mailari eutsiko dio Andoni Azkar-gortaren taldeak.

Domekan nesken txanda izango da. Zortziko taldeak 16:30ean jokatu du Ipintzan, eta Añor-ga izango du aurkari.

FOTOKIROLA



Bergara Kirol Elkarteko hiru neska Realarekin probetan

Real Sociedad futbol taldea emakumezkoen talde bat sortzeko asmotan dabil. Horretarako Gipuzkoako taldeetan diharduten jokalariei dei egin eta hauei hainbat proba egin dizkiete. Ondoren, taldea sortzen bada proba horietan maila egokia erakutsi duten neskek hartuko dituzte, seguru aski, talderako. Bergara Kirol Elkarteko hiru neskek ere hartu dute parte proba hauetan. Maialen Alkorta, Miren Berraondo eta Oihana Iñurrategi aurkeztu ziren aukeraketara, eta partidu bat jokatu behar izan zuten hautatzaileen aurrean. Hiru neska hauek Zubietara joan ziren egunean, 25 inguru azaldu ziren, baina probak beste egun batzuetan ere egin dituztenez, ehun inguru badi-ra parte hartu dutenak. Orain, erantzunaren zain geratu beharko dute hiru neskek./I.A.

PILOTA

Bergarako pilotariak zarauztarren aurka jokatu dute gaur Herriarteko Txapelketan

Gaur, barikua, 19:30ean hasita, Bergara Kirol Elkarteko pilotariak Herriarteko Txapelketako partiduak jokatu dituzte. Kadete, gazte eta senior mailetan jardungo dute zarauztarren aurka. Bestalde, aurrera doan Bergara Hiria Pilota Txapelketan, martitzenean, 22 urtez azpikoetan Aspe-Errarte bikoteak 22-15 irabazi zuen Aspiazu-Aspiazu bikotearen aurkako partiduak. Nagusietan, berriz, Uizik eta Gutierrezek lau tantotan utzi zituzten Altuna eta Dominguez. Bergararren, beraz, aurrera egingo dute txapelketan. Datorren martitzenean, 19:30ean, Etxeberriak eta Izak Urmeneta eta Esnaolaren aurka jokatu dute; eta Erauzkin anaiek Lasa eta Mendizabalen kontra.

TXIRRINDULARITZA

Zikloturistek Bizkai aldera 80 kilometroko irteera egingo dute domekan, maiatzaren 2an

Begarako Txirrindulari Elkarteko zikloturismo sailak antolatuta, domeka guztietan irteerak egiten dituzte herriko zikloturistek. Martxoaren 7an hasi zuten denboraldia, eta datorren domekarako Bizkai aldera joateko irteera prestatu dute. Bergaran abiatu eta Trabakuatik Gerrikaitzera joango dira, handik Bizkaiko Begiratokira, Iurretara, eta Kanpanzartik Bergarara bueltatuko dira. Ibilbideak 80 kilometro ditu. Irteera 08:30ean izango da autobus geltokian. Nahi duenak bertara azaldu besterik ez du. Denboraldiak urriaren 11ra arte iraungo du.

SASKIBALOA

Asteburuan ez da saskibaloia partidurik izango, talde guztiek atsedena dutelako

Maiatzaren 1a jaieguna izanik, saskibaloia talde guztiek atsedena izango dute asteburu honetan. Denboraldia amaitzear dago, eta bi edo hiru partidu baino ez zaizkie falta horretarako. Kadete mailako nesken taldeak eman du denboraldi honetan ezustekoa; izan ere, lehen mailara igotzea zen euren helburua, eta lortu egin dute. Kadete mailako mutilen talde batek mailaz igotzea lortu du; besteak, ordea, ez. Gazteak ere ez dira lehenengo mailara iritsi.

ESKUBALOA

Kadete eta nagusien mailetak mutilek domekan jokatu dute Labegarietan

Asteburu honetan bi eskubaloia partidu izango dira Labegarietako kiroldegian. Domeka goizean 11:00etan kadete mailako mutilek Egiako taldearen aurka jokatu dute. 12:30ean, berriz, nagusiek Arratekoak izango dituzte aurrez aurre. Eibarko Arrate taldea aurkari gogorra izanik, indar guztia erakutsi beharko dute bergararrek. Bi partiduok kopa txapelketakoak dira.

TXIRRINDULARITZA

Labegarietako Sari Nagusia jokatu dute bihar, zapatua, txirrindulari alebinek

Bihar, zapatua, Labegarietako txirrindulari lasterketaren hamazazpigarren edizioa izango da jokoan. Proba hau Gipuzkoako Txapelketa izango da. Txirrindulari alebinek Labegarietan hasi eta, 70 kilometroko ibilbidea egin ostean, 18:20 inguruan Labegarietan bertan amaituko dute proba. Lasterketan, Lokatza taldeko lau bergararrek hartuko dute parte: Joseba Muguruzak, Asier Penabadek, Unai Markiegik eta Iban Caballerok.

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

17:00: Mongaburra-S.D.T.N.T. Fit Automo.
18:00: Fit Automoción-T. Musakola. Irubide
19:00: Irubide-Teatekh. Torpedo Musakola

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Errotagain-T. Añiketan. Bedarreta
17:00: De Resaka-Bedarreta. Pirulotarrak
18:00: P.D.S.-Pirulotarrak. A Ze Flaxa
19:00: T. Musakola-A Ze Flaxa. P.D.S.

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

OSASUN ADARRA, A ETA D EREDUETAN

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen sorospenetarako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

IZEN EMATEA: ekainaren 1etik 9ra arte




J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu Tel: 943 72 14 13 • Faxa: 943 72 14 03
Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es

Barceló



Bidaiak



Eskaintza berezia. La Ciutat (Arteen eta Zientzien Hiria)



Bergarako Jaiak 2004

Udarako erreserba orain eginez
gero, %8rainoko deskontua



IBARGARAI 8 • Tel.: 943 76 08 43

TENERIFE

8 egun 226 €-tik aurrera
5 egun 204€-tik aurrera

MALLORCA

8 egun 279 €-tik aurrera
5 egun 213 €-tik aurrera

PARIS

5 egun 380 €-tik aurrera



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 18. alia

IEPA LAGUNOK!

Hemen nator aste honetan be zuekin tartetxo bat egoteko. Gaurko alian danetik aurkituko dozue: txistia, kantua, ariketaren bat... ez dozue aspertzeko astirik eukiko! Animo!!!



URREZKO ARAUAK

- Gozoki bat emongo balost, barre egingo neuke.
- Bihar mendira jua geinke.
- Gozoki bat emongo balost, barre egingo neban.
- Bihar mendira jua leike dogu.



LOTU MARRAZKIXAK ESALDIXEKIN



1

A. Gaur eguerdixan Elenari telefonoz deittu dotsat.



2

B. Amamak patxo bat emongo balost, lo egingo neuke.



4

E. Matematikako irakaslia mendixan ikusi neban.



5

F. Guk bihar bazkari eder bat egin geinke.



3

D. Zu be etorri zeinke gurekin txakurkumiak ikustera.



6

G. Zu gurekin hondartzara etorriko baziña hobeto ibilliko giñake.

ZER SARTU ZEINKE NERE KAXAN?

Jokalarixen artian gidarixa aukeratuko da. Galdera hau egingo dau: Zer sartu zeinke nere kaxan?



Adibidez: "ka"- z hasten diren gauzak.

Jokalari bakoitzak "ka"-z hasten diren objektuak izendatuko ditu banan-banan, txandaka. Une batian, bateren bat, zer esan ez dakixela gelditzen danian, horren aurreko jokalarixa izendatuko da irabazlia, hau da, azken objektuaren izena esan dabena. Ondoren, bera izango da gidarixa.

TXISTIA

Bi zoro zoroetxian:

- Zer ordu da?
- Ez dozu ikusten paretan dagan ordularixa ala?
- Ondo dago erloju hori ala?
- Zela egongo da ba ondo! Ondo balego ez leukie hona ekarriko.



ZAHARRAK BERRI/ Ehun bat lagun elkartu ziren urteko batzar orokorrean, eta zuzendaritza berritzea onartu zuten, besteak beste

Urteroko jarduerari eutsiko die San Joxepepek

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra egin zuen astelehenean, hilaren 26an. Ehun bat lagun elkartu ziren batzarrean. Besteak beste, zuzendaritzaren berritzea eta aurtengorako asmoen berri eman zuten San Joxepeko ordezkariak.

Astelehenean esandakoaren arabera, urteroko jarduerari eustea da San Joxepekoen asmoa. Gaur egun 1.647 bazkide dira eta elkarrekin dinamikoa izatea eta herriko bizitzan parte hartzeko helburua daukate. Aisialdirako jardueraz gain, nagusien kolektiboarendako interesgarriak izan daitezkeen ikastaroak antolatzen jarraituko dute eta, udaleko ongizate zerbitzuarekin elkarlanean, boluntario taldeetan parte hartuko dute, besteak beste. Era berean, etorkinekin kolaboratzeko asmoa daukate herriko erretiratuek.

Joan zen urteko diru kontuak ere azaldu zituzten batzarrean: diru sarrerak 153.918 eurokoak izan ziren eta gastuak, berriz, 145.848 eurokoak.

Zuzendaritza batzordearen berritzeari dagokionez, Juan Itu-

rralde elkarteko presidentearekin batera, Juan Kruz Azkarate (presidenteordea), Mariasun Plazaola (idazkaria), Antolin Marchena (diruzaina), Nieves Gallastegi, Jesus Ruiz de Azua, Alejandro Arroyo, Irene Gabilondo, Rosa Larrañaga eta Luis Mari Ugarte izango dira San Joxepeko zuzendaritzan. Azken lauak asteleheneko batzarrean izendatu zituzten, Nati Albusua, Dora Manso, Maria Luisa Basterra eta Jose Miguel Ortigosaren ordezkari hain zuzen ere. Txalo artean agurra eman zieten irtendakoei eta ongi-etorria batzordeko kide berriei.


BIZKAIKO KOSTALDERA IRTEERA

San Joxepeko lagunek Bizkaiko kostaldera irteera egingo dute datorren maiatzaren 13an. Besteak beste, Lekeitio eta Elantxobe bisitatuko dituzte eta bazkaria Bermeon egingo dute. Izena emateko epea maiatzaren 4ra arte zabalik dago, 943 76 30 09 telefono zenbakian.

Bestalde, maiatzaren 6rako iragarritako zuten mendi irteera bertan behera geratu da. Hurrengo mendi irteera maiatzaren 27an egingo dute, Donostia, Igeldo eta Oriora. Aurretik, maiatzaren 20an, Udaberriko Jaia ospatuko dute erretiratuen egoitzan.



Argazkian, ezkerretik eskumara, Mariasun Plazaola, Juan Iturralde eta Jose Miguel Ortigosa, asteleheneko batzarrean.



Txapel ugari San Joxepekoendako

Erretiratuen Debagoieneko txapelketetan San Joxepeko ordezkariak fin aritu ziren: Gabriel Medina (argazkian) billarrean nagusitu zen, Antolin Marchenak xakeko txapelketa irabazi zuen eta igela eta toka jokoetan, berriz, Jesus Ruiz de Azuak eta Markos Labaienek eraman zuten lehen saria, hurrenez hurren. Karta jokoan, Jose Mari Aki-zuk eta Jose Antonio Lazpiurrek osatutako bikotea lau erregeko mus txapelketan nagusitu zen. Arrasaten jokatu ziren finalak.

LABUR

Informatika ikastaroak erretiratuendako

San Joxepe elkarteak erretiratuei zuzendutako informatika ikastaroak iragarri ditu: Powerpoint ikastaroa maiatzaren 4tik ekainaren 15era bitartean izango da, martitzenetan, 11:00etatik 13:00etara; Internetekoa, maiatzaren 5etik ekainaren 16ra, eguztenetan, 17:00etatik 19:00etara; eta argazkien tratamendua- ren gainekoa, maiatzaren 6tik ekainaren 7ra, eguenetan, 11:00etatik 13:00etara. Argibideak eta izena ematea 943 76 30 09 telefonoan.

IRAGANA GOGORATUZ

Itsasoari begira

Martitzenean, maiatzaren 4an, 20:30ean eta 22:30ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

FAGOR



Euskal Herrian ehizatu zen azken balea.

ELKARRIZKETA

ANE BERASATEGI/GALTZAGORRI ELKARTEKO KIDEA

“Euren hizkuntza propioa balitz bezala lantzen dute umeeek poesia”

EDU MENDIBIL

Galtzagorri elkartearen *Haur poesia aretoa* erakusketa ikusgai izan da egunotan kultura etxean. Ane Berasategiren eskutik, 8-10 urte bitarteko gaztetxoak poesiara hurbiltzeko bisita gidatuak antolatu dira.

Zelan sortu zen erakusketa honen ideia?

Haur literaturaren barruan poesia gutxien ezagutzen den eremua dela ikusi genuen: poesia modu egokian lantzeko denbora falta eta ezjakintasuna ere bada, poesia ulertuko ez dugula uste dugulako askotan. Horrela, joan zen ikasturtean jarri genuen mar txan erakusketa ibiltari hau. Nola hurbiltzen dira neska-mutikoak poesiara?

Bazen behingo basoa... izenburupean, baso itxurako dekoratu baten eta hainbat poema (Juan Kruz Igerabiderenak, Anjel Lertxundirenak, herri poemak...) oinarri hartuta, zirkuitu moduko bat proposatzen diegu gaztetxoei. Ordu bete inguruko saioetan, poemak entzuten dituzte eta horiek in jolasteko aukera daukate; hitz jolasak, aho korapiloak, zenbaki jokoak... Azken baten, gaztetxoek sorkuntza lantzen saiatzen gara, eta neska-mutikoak gustura ibiltzen dira. Oso azka-



Ane Berasategi Galtzagorri, Euskal Haur eta Gazte Literatur Elkartearen kidea.

rrak dira adin horietan, eta poesia euren hizkuntza propioa balitz bezala lantzen dute. Haurrak oso harkorrak dira, eta poesia modu ludikoan aurkezten bazaie, gauza bizia dela ikusten dute.

Gaztetxoek kasuan, tele-

bista irakurketaren etsaia da?

Ez luke horrela izan behar. Argi dago telebistara errazago jotzen dutela. Teknologia berrien eskaintzaren aurrean, xarma eta magia duten gauzak eskaini behar dizkiegu gaztetxoei.



Mari Paz Alustizaren kartela, sarituta

Mari Paz Alustiza izan da Pazkoetako jaietako begira Udalak antolatutako kartel lehiaketaren irabazlea. Pintore bergararrak jaietako hainbat motibo uztartu ditu saritutako lanean. Lan koloretsua eta abstraktua da Alustizarena. Guztira, 22 lan aurkeztu dira lehiaketara eta epaimahaiak Mari Paz Alustizari lehen saria ematea erabaki zuen aurreko astean. Irabazleak lehen sariari zegozkion 600 euroak jasoko ditu.

Kartel irabazlea Udalak aterako duen jai egitarauaren azalean joango da. Jakingo duzueenez, Pazkoak maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitartean ospatuko dira. Aurreko astean aurreratu genizuen moduan, Jarduerak, Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria batzordeak ia guztiz zehaztuta dauka programa.

LABUR

Mikel Alberdi historialariak bandoleroen gaineko hitzaldia egingo du eguenean

Bergara, historia topagunian hitzaldi sortaren barruan, Mikel Alberdi historialariak *Bandoleroak Euskal Herrian duela 200 urte* izenburuko hitzaldia egingo du eguenean, hilaren 4an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Mikel Alberdi Zumalakarregi Museoko Ikerketa eta Dokumentazio Saileko arduraduna da.

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua emango du Azpeitian, domeka eguerdian

Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan Azpeitian, 13:00etan. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Bandako kideek honako piezak joko dituzte: *Añoranza*, *Poeta y aldeano*, *Gero bat gaurdanik*, *Noah's ark* eta, azkenik, *The last of the mohicans*.

Doctor Deseo taldeak diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Jam aretoan

Doctor Deseo musika taldearen kontzertua izango da bihar, zapatua, Bergarako Jam aretoan, 22:00etan. Bilbotarrek *Rómpeme con mil caricias cielo, rómpeme* (Gor disko etxea) azken diskoa aurkeztuko dute. Kontzerturako sarrerak 10 eurotan jarri dituzte salgai. Jameko leihatilan, berriz, 12 eurotan salduko dituzte.

Maria Dolores Cebollaren margo erakusketa Nahikari tabernan ikusgai, domekara arte

Maria Dolores Cebollaren margo erakusketa ikus daiteke egunotan Nahikari. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik. Cebollak XIX. eta XX. mendeko hainbat pintoreren erreprodukzioak egin ditu. Bestalde, martitzenean, hilaren 4an, Matias Azkarate-ren olio erakusketa zabalduko dute Nahikari.

Cool Panic-en kontzertua gaur gauean gaztetxean

E.M.

Cool Panic musika taldeak *Soul on fire* diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:30ean. GP disko etxean grabatutakoa, *Soul on fire* Cool Panic taldearen bigarren lana da, 2001ean kaleratu zuten *Made of stone* (Safety Pin disko etxea) lanaren ondoren. Lan berriak hamar kantu ditu eta 12 euroren truke jarri dute salgai. 1.000 kopia kaleratu dituzte.

1998an sortu zuten Cool Panic, eta Itziar Iturbe (ahotsa eta pandarera), Alex Muela (gitarra), Joseba Lasa (gitarra), Mikel Azkargorta (baxua) eta Iker Nar-

vaezek osatzen dute taldea. Rock-and-rolla egiten dute, ingelesez. Azken diskoan bi bertso ere egin dituzte, The Dogs taldearen *Black tea* eta Al Kooper-en *I can't keep from crying sometimes*, hain zuzen ere. Astean behin elkartzen dira goiko estazioan, entseatzeko. Maiatza eta ekaina aldera, berriz, Estatu mailan hainbat kontzertu emateko asmoa daukate. Gaur, Bergaran ikusteko aukera izango dute bere jarraitzaileek.


SEÑOR NO ETA INVENCIBLE TALBOT

Gaurko kontzertuan, Cool Panicekin batera, Señor No eta Invencible Talbot taldeek ere joko dute gaztetxean.



Cool Panic (argazkian), Señor No eta Invencible Talbot izango dira gaur gaztetxean.

MIKEL GARATE



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Alazne Urkiola
Maiatzaren 1ean, urtebete.
Zorionak! Gurasoak, bereziki Maitane.



BERGARA
Patxi Urkiola
Maiatzaren 1ean.
Zorionak! Etxekoak, Alazne eta Maitane.



BERGARA
Eneko Kortabarria
Maiatzaren 2an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Olatz Ibabe
Maiatzaren 1ean, 9 urte.
Urte askotarako!
Izeba eta sendiak.



BERGARA
Martin Azpiazu
Maiatzaren 1ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Itziar Casanellas
Apirilaren 25ean, 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Sanz
Apirilaren 28an, 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ibai.



BERGARA
Itsaso Igarza
Apirilaren 24an, 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Leire.



BERGARA
Maider Oregi
Apirilaren 26an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Benito Davila
Maiatzaren 2an, 8 urte.
Urte askotarako!
Aitaren partez.



BERGARA
Jon Macias
Apirilaren 28an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak eta batez ere Amaia.



BERGARA
Aritz Izagirre
Apirilaren 28an, 3 urte.
Urte askotarako!
Itziar eta Irati.



BERGARA
Manex Larrañaga
Maiatzaren 3an, 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Izar.



BERGARA
Jon Agirre
Maiatzaren 1ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Lorea Palacios
Maiatzaren 3an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Irati.



BERGARA
Maider Gorosabel
Maiatzaren 5ean, 3 urte.
Etxekoak! Anaia, Susana eta lagunak.



BERGARA
Ander Etxaniz
Apirilaren 27an.
Zorionak! Etxekoak, aitatxo eta amatxo, Iker.



BERGARA
Paul Azkargorta
Apirilaren 30ean, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara:

Berrigara,

Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola:


Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik

19:00etara

Elgeta:

Erosle-Baltxongua

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE




Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresant munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobea den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaituz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko apirilaren 30a / 200. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Gazteak Kalebarrenen eta gaztetxoak Errekalden

AINTZANE IRIZAR

Udaleko arduradunek, Gazte Asanbladako kideek, gaztetxoek eta Txatxilipurdiko kideek izandako hainbat batzarren ondoren, honakoa adostu dute: gaztetxoek Errekalde auzoan izango dute lokala; gazteek, berriz, Kalebarrenen, lehen egon ziren tokian.

Badira hilabete batzuk Udala gazteen lokal faltaren arazoa aztertzen dabilela. Horrela, Txatxilipurdi elkarteari eskatu zion gazteen egoera, beharrianak eta nahiak aztertzeko ikerketa egin zezala.

Udaleko arduradunen esanetan, ikerketa horretan argi ikusi zuten 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek eta 15 urtetik gorakoek helburuak ez direla berdinak. Udalaren hasierako asmoa lokal bakarra jartzea zen arren, azkenean, bi lokal behar direla ikusi dute.

Gaztetxoentzako Udalak Errekalde auzoan daukan lokala egokituko dute. 15 urtetik gorakoentzako, berriz, Kalebarrenen lokala izango da. Bizpahiru aste barru zabalduko dituzte lokalok.

EGOTOKO TOKI BAT

Gaztetxoentzako bi begirale izango dituzte Errekaldeko lokalean, eta elkarrekin, aisialdirako hainbat ekintza antolatuko dute.

Azken baten, 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek behar dutena da egoteko toki bat.



15 urtetik aurrerakoek Kalebarrenen izango dute lokala, lehenengo tokian.

AGA-REN HELBURUA, GAZTETXEA

Gazte Asanbladako kideak ere gustura daude, Udalarekin akordio batera heltzeko daudelako. Euren helburua eta beharria-

nak, baina, ezberdinak dira: eurek kudeatutako gaztetxea nahi dute. Dena dela, pozik daude lortutakoarekin.

Oraindik hainbat batzar egin beharko dituzte Udalak, Txatxilipurdik eta gazteek, batez ere, lokaletako arauak zehazteko: ordutegia, garbitasuna, zaraten gaineko arauak...

Azkenik, aipatzekoa da Udalak lokalen inguruetakoa bizilagunekin eta dendariekin batzarra egiteko asmoa duela, hartutako erabaki hauen berri zuzenean emateko.

Udaleko arduradunen esanetan, bizpahiru aste barru irekiko dituzte lokalak

UDALA

Alkatea GOITBn egon zen martitzenean

AINTZANE IRIZAR

Martitzen iluntzean GOITBko *Herriz herri* saioan egon zen Jose Angel Zabalo alkatea. Alberto Gorritibereak elkarrizketatu zuen. Antzuolarrok saio hori ezin izan genuen ikusi, Antzuolan ez da eta GOITB ikusten; hala ere, alkateak azaldu zuenez, laster ikusi ahal izango dugu.

Hainbat gairen gainean berba egin zuen Zabalo *Herriz herri* saioan, eskuartean darabiltzaten proiektuen gainean, batez ere.

Batetik, errekarren gainean jardun zuen. Azaldu zuen errekarren arazoari irtenbidea emateko honako lanak egingo dituztela: plazako etxeen ostetik gainezkabidea egingo dela, estalita; bestetik, plazan lanen bat plan-

teatzen denean, erreka agerian lagako dutela; hori bai, hiru plataforma handi egingo dituzte errekarren gainean, bi aldeak batzeko. Badirudi Diputazioak proiektu horiek biak bukatzea dituela.

Haurtzaindegiaren proiektuaz ere egin zuten berba: urte bukaerarako lanak amaituta egoitea espero duela azaldu zuen.

Herriz herri saioan, baina, Antzuolaren gaineko bestelako kontuak ere landu zituzten. Besteak beste, trenaren gaineko erreportajea egin zuten Laskurainhaundi baserriko Agustin Leteren laguntzarekin, eta Lapatza baserriko Tomas Larrañagari elkarrizketa egin zioten. Herri-tarrek hainbat eskaera eta kexa ere azaldu zituzten Jose Angel Zabalori.



Alberto Gorritibereak egin zion elkarrizketa alkateari.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA



Juan Cruz

Jaunartze argazkiak

Betiko izango den oroigarriak merezi du lan txukuna.
Zatoz Juan Cruzera.

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

KIROLA

Erregional mailako futbol taldeari partidu bakarra geratzen zaio denboraldia amaitzeko

AINZANE IRIZAR

Kadete mailako futbol taldeak aurreko asteburuan bukatu zuen denboraldia. Erregional mailakoari, berriz, jardunaldi bakarra gelditzen zaio. Datorren asteburuan jokatuko dute erregionalek denboraldiko azkeneko partidua, Lengokoak taldearen aurka.

Derbi batekin bukatu zuen denboraldia kadete mailako futbol taldeak, aurreko asteburuan; 6-2 galdu zuten Bergararen aurka.

Igoera faserako sailkatu ez, eta kopa jokatu dute kadeteek; euren taldean azkeneko postuan geratu dira antzuolarrak. Hamar partidutik bi irabazi dituzte eta gainerakoak galdu.

NAGUSIAK DENBORALDIA AMAITZEAR
Antzuola. Kirol Elkarteko talde nagusiak, berriz, datorren aste-ko asteburuan bukatuko du denboraldia. Lengokoak taldearen aurka jokatu dute aurtengo denboraldiko azkeneko partidua.

Ligan ondo ibili zen erregional mailako taldea; horrela, igoe-

era faserako sailkatu ziren. Bigarren fase honetan, baina, ez dira hain fin ibili antzuolarrak: jokatu dituzten hamahiru partiduetatik bi besterik ez dute irabazi; zazpi galdu egin dituzte eta lau berdindu.

Gauzak horrela, ez dute igoe-
ra lortzeko aukerarik izango. Azkenean, euren taldean seigarren postuan geratu dira.

Aurreko asteburuko partiduan, azkenaurrekoan, taldeko liderraren aurka jokatu zuten, Idiazabalgo taldearen aurka, hain zuzen ere, eta 5-0 galdu zuten.

GAZTEAK ETA NESKAK

Gazte mailako taldeari, bestalde, hiru jardunaldi geratzen zaizkio oraindik aurtengo denboraldia amaitzeko. Hauek ere, kadeteak bezala, igoe-
era faserako sailkatu ez, eta kopa jokatu dute. Euren taldeko lehen postuan daude, 22 punturekin. Jokatu dituzten bederatzirek partiduetatik zazpi irabazi dituzte, bat galdu eta beste bat berdindu.

Oraingo asteburuan jokatu dute hurrengo partidua Irunen, Behobia taldearen aurka. 15:30ean



ARTXIBOA

Datorren asteburuan jokatu dute erregionalek denboraldiko azkeneko partidua.

izango da partidua, zapatuan. Bosgarren postuan dago Behobia taldea, 9 punturekin. Hamar partidutik zazpi galdu egin dituzte irundarrek.

Neskek ere ez dute oraindik denboraldia amaitu; bi jardunaldi geratzen zaizkie. Hauek ez dira gazte mailakoak bezain ondo ibili. Dena dela, kontuan hartu behar

da aurtengo denboraldirako sortu zutela taldea eta hasiberriak direla.

Txapeldunen Ligarako ez zuten sailkatzerik izan eta kopa jokatu dute. Kopako fasean sei partidua jokatu dituzte: bost galdu dituzte eta bat berdindu. Oraingo asteburuan etxean jokatu dute Elgoibarren aurka.

KULTURA

Anje Duhalderen kontzertua izango dugu bihar, zapatua, osoko bilkuren aretoan

AINZANE IRIZAR

Debagoieneko Mankomunitateak eta Uztaritzeko Euskal Kultur Erakundeak *Iparraldea bertan* programa antolatu dute. Hama-bostaldi kulturala izan da, eta maiatzaren 2an, domeka, amaituko dira ekitaldiak. Horren barruan, Anje Duhalde kantariaren kontzertua izango dugu bihar, zapatua, osoko bilkuren aretoan. Gaueko hamarretan izango da emanaldia, eta sarrera bost euro izango da.



ARTXIBOA

Anje Duhalde kantaria.

'IPARRALDEA BERTAN'

Mankomunitateak eta EKEK abian jarri duten programa horren helburua da, izenak berak dioen moduan, Ipar Euskal Herria bertaratea; hau da, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanak areagotzea eta batak bestea hobeto ezagutzea.

Helburu horrekin, Debagoieneko hainbat herritan antolatu dituzte ekitaldiak: Iparraldeko idazleak, kantariak, antzerki eta dantzari taldeak... Denetik izan

dugu hamabost egun hauetan gure ibarrean.

Bi erakusketa ere jarri dituzte debagoiendarron eskura. Bata, Oñatin, *Kantuketan* izenekoak. Erakusketa horretan 1947an grabatutako euskal kantak entzuteko aukera dago Oñatiko Kultura Etxean. Domekara arte, hilak 2, dago zabalik erakusketa hori.

Gatzagan, bestetik, *Euskal Herriko Aurpegiak* izeneko erakusketa egon da, baina, martitzenean amaitu zen. EKEK antolatutako erakusketak dira biak.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 1
16:30: Antzuola-Elgoibar (Neskak)

PILOTA

Maiatzak 4 (Debarroko Txapelk.)
19:00: Olalde-Eskoriatza (Kad. eskuz)
Ondoren: Olalde-Eskoriatza (Nag. esk.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Idiazabal 5 Antzuola 0 (2. erreg.)
Bergara 6 Antzuola 2 (Kadeteak)
Dunboa Eguzki 4 Antzuola 2 (Nesk.)

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko apirilaren 30a / 185. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Udalak 6.808.443 euroko aurrekontua onartu du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Asteartean egindako udalbatzarrean, aurtengo aurrekontuak onartu zituzten. Zinegotzi guztien eta alkatearen baiezkotuen bidez 2004ko aurrekontua 6.808.443 eurokoa izatea adostu zuten. Bestalde, agintaldi osorako diru sarrerengain plangintza egingo dute.

Ezohiko udalbatzarra egin zuten martitzenean udaletxean, eta 2004. urterako 6.808.443 euroko aurrekontua onartzea adostu zuten EAJ-EA koalizioa eta Aralarko ordezkariaren baiezkotuen bidez. Elgeta Auzolanian plataformako kideek, berriz, aurrekontuaren gaineko iritzia eman zuten.

Aurtengoa inoizko aurrekonturik handiena da. Izan ere, iazkoarekin alderatuz ia bikoiztu egin dela esan genezake. 2003ko udal aurrekontua 3.406.874 euro izan zen.

INBERTSIO HANDIENAK

Aurrekontu horretatik, guztira 5.647.649 euro inbertsioetara bideratuko dituzte.

Inbertsio nagusiak Hirigintza batzordeak egingo ditu. Izan ere, eraikuntza eta urbanizazioa bideratuko da aurrekontuaren zati handi bat.

Pagatzako industrialdeko bigarren zatia urbanizatzeak 3.723.009 euroko kostua izango du. Torrealdea urbanizatzeak 750.000 eurokoa eta Espaloiko lanek 397.037 eurokoa.

Inbertsioak batzordeka

Hezkuntza	36.609 €
Hirigintza	4.795.386 €
Baserritarrak	119.378 €
Kultura	448.829 €
Osasuna	159.863 €
Kirola	51.244 €
Inbertsio orokorrak	36.340 €
GUZTIRA	5.647.649 €

Gastuak

Pertsonal gastuak	380.581 €
Gastu arruntak	338.228 €
Interesak	22.713 €
Transferentzia arruntak	197.928 €
Amortizazioak	108.656 €
Gerakin negatiboak	112.688 €
INBERTSIORAKO	1.160.794 €

ALDERDIEN IRITZIAK

Aralarrek baiezkotua eman zion EAJ-EAk proposatutako aurrekontuari eta bide batez zera esan zuen: "Lehen aldiz, agintaldiari begira espero dituen diru sarrerengain plangintza egingo du Udalak". Diru sarrerengain kontuari dagokionez zera gaineratu zuten: "Zalantza asko ditugu EAJ-EAk aurkeztutako sarrerengainean. Zaila ikusten dugu denak betetzea. Batez ere aprobetxamendu urbanistikotik espero direnak. Horre-

gatik, sarrera hauek ez datozen artean zenbait gastu ez egiteko konpromisoa adostu da".

Elgeta Auzolanian plataformako kideek ere euren iritzia eman zuten aurrekontuaren gainean: "Aurrekontuak desorekatuak direla iruditzen zaigu, %83 eraikuntzara bideratuta baitago. Horrek ingurumen eta nekazaritzan du eragina eta aurrera begira aurrekontuak prestatzean filosofia aldatu egin behar litzateke", esan zuen Edurne Alberdik.

BERTSOLARITZA

Plazatik Gaztetxera bertso sariketa gaur

I.A.

Bertsolaritza sustatzeko eta bertsoek gune berriak irabazteko asmoz, Mutrikuko bertso eskolak eta bertako gaztetxeak Plazatik Gaztetxera txapelketa ipini zuten abian, orain dela zenbait urte. Aurtengo edizioa gaur hasiko da, eta lehen kanporaketa Elgetako gaztetxean egingo dute. Finala maiatzaren 29an izango da Mutrikun.

Eskolarteko bertso txapelketan parte hartzeko adinez nagusiak izan eta gutxienez maila duten bertsolariak gonbidatu dituzte txapelketara.

SEI BERTSOLARI

Kanporaketa saio bakoitzean sei bertsolarik jardungo dute. Elgetakoan honako hauek izango dira:


Jon Unanue (Ermua), Oihana Bartra (Bilbo), Mikel Arrillaga (Eibar), Oier Azula (Lekeitio), Enaitz Alustiza (Bergara) eta Xumai Murua (Azkaine).

Epaimahaian Aitzol Astigarraga, Asier Ibaibarriaga eta Uxue Alberdi egongo dira.

Saioa aurkezteko ardurak, berriz, Sebas Arantzabal elgetarrak izango du eta idazkari lanetan gazte asanbladako kideren batek jardungo du.

Saioa afalostean egingo da, 22:00ak aldera, eta afaria gaztetxean bertan izango da.

Bertsolariek ofiziotan zortziko nagusian eta txikian kantatuko dute lehenengo eta gero bakarka puntuari erantzunez, hitza emanda eta azkenik gaia emanda bina bertso bota behar dituzte.



Enaitz Alustiza bergararrak Elgetako kanporaketan hartuko du parte.

Patxi Taberna

- Bokata goxoak
- Plater konbinatuak
- Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

ELKARRIZKETA

ANTONIO ITURRICASTILLO/GERRA ZIBILEKO LEKUKOA

“Elgetan bi hobi badaude gutxienez; Zabaleta baserri inguruan bat eta Antsoategin bestea”

Gerra Zibilean fusilatu zituztenak hobietan lurperatzen zituzten. Ibairean hainbat hobiren aztarnak aurkitu dira, horietako batzuek Elgetan. Antonio Iturricastillo Gerrako lekukoa izanik, berarekin hitz egin dugu.

Gerra Zibilean hobietan egindako lurperatzeen berri orain dela gutxi eman dute. Orain arte zergatik ez da jakitera eman?

Urte askoan ez da kontu hau onartu. Gainera, fusilatutako horien senitarteko gehienak hil egin dira eta bilobek zerbait entzuna izango bazuten ere kezka ez da hainbestera izan. Zuen etxean, ordea, bazen kezkarik honen gainean.


Bai, gure familian osaba, apaiza zena, fusilatu zuten, beraz, interesa azaldu dugu gai honekiko. Erretiratu genituen bere gorpuzkinak Oiartzungo hilerria. Baina bere kasua ere berezia zen. Francoren garaian egin genuen hori. Gainera, apaizek beti izan dute indar handia, eta apaizek eurek egin zuten dena guri ez baitziguten tokia ikustera joaten ere utzi. Berarekin batera Eskoriatzako Marin auzoko hainbat lagun ere lurperatu zituzten Oiartzunen.

Aranzadi Elkarteak egon dira Elgetan hobi bat egon daitekeen lekuan.

Zabaleta inguruan Dragoen Batailoia zelakoa egondako leku bat dago, eta han izan ginen. Harrobi bat zegoen eta babeserako leku modura erabiltzen zuten, bertatik Bergara ere ongi ikusten zelako. Bertan mortero bat erori eta denak hil ziren. Bali-teke han lurperatuta egotea baina lurra mugitu ezean ezin daiteke seguru jakin.

Beste hobirik badago?

Antsoategin dago beste bat. Gerra garaian nik artean sei urte besterik ez nituen, baina gogoan



zenak kontaktzen zuen esne marmita baten truke laga ziotela. **Noizbait aterako dituzte gorpuzkinak lurpetik?**

Toki zehatza aurkituz gero aterako dituztela uste dut. Lehen erraz aurki zitekeen, landutako soroak zirelako. Garia sartuta zegoen bertan eta gune bat beltzagoa agertzen zen, hobia han zegoen seinale. Baina hainbeste urtetan landu ostean, desagertu egin da.

Umea zinen arren nola gogoratzen duzu Gerra garaia?

Nik kaleko berri gutxi dakit. Baina gogoan dut hegazkinak sumatzean kanpaiak jotzen zituztela eta gu ezkutalekuan gordetzen ginela. Eta zulo txiki batean dozena bat lagun sartzen ginen. Azken egunean, tropak sartu zirenean, beste baserri batera joan ginen hemengo bonba hotsek ez zutelako akaberarik. Iluntzean itzuli egin ginen eta leihotik soldaduak pasatzen ikusi genituen. Bestalde, gogoan dut gudariak nola etortzen ziren gurera arropak garbitzera, lehortzera, ogia egitera. Horietako batek esan zion gure amari nola bertako semea hil zuten. Beraz, kasualitatez jakin genuen berria. Miliziarrek baserri inguruan zebiltzala, nik fusilari eutsi ezin banion ere eurek eutsi eta nik apuntatu egin nuen.

Bonbek etxetik gertu egiten zuten eztanda?

Batzuek bai. San Roken kanoi bat zegoen eta gurera, etxe barrura ere sartu izan ziren kanoikadak. Ohe azpira sartu zen bonba eta oheko koltxoia erre zen, baina inor ez zen zauritu.

Orain dela gutxi militarrek izan dira Elgetan. Gerra garaia gogorarazi zizuten?

Gure aurrekoak ohituta zeuden militarrek ikustera eta niri ere ez zidaten erreparo handirik eman hona etorri ziren soldaduek. Bada esaera bat diona: bakerik txarrena hobia dela gerrarik onena baino.

“Osaba fusilatu eta Oiartzunen lurperatu zuten ez gaiarekiko interesa azaldu dugu beti”

daukat amak esan zigula ikuste-k nola ekartzen zituzten gizonak hilda eta zulora bota. Gauza seguru da haiek hor daudela, baina toki zehatza ez dakigu. Esaten dute hildakoak Arrasatekoak ote ziren. Baserrikoek kontaktzen dute euren bila sartu zirenean lastoa

“Gudariak gurera etortzen ziren arropak garbitu eta lehortzera eta ogia egitera”

artean gorde zirela. Beste hoberik ere egongo da seguru aski. **Elgetarrik badago lurperatuen artean?**

Ez, bi hobi hauetan ez. Baserriko gizona hil zutenean emazteak eskatu zuen herriko hilerria eramaten uzteko eta aita

LABUR

Herriko jaietan Luzaideko dantza egiteko ikastaroa

Jaietako Batzordeak jadanik egin ditu hainbat bilera aurtengo Azoka Nagusiko jaiak gertatzeko. Besteak beste umeen euskal jaia berreskuratzea adostu dute. Euskal jaiari amaiera egokia emateko herritarrek plazan Valcarlos dantza egitea erabaki dute eta dantza hori ikasteko gaurtik, barikutik, hasita ikastaroa izango da. Interesa dutenek barikuetan 19:30ean kiroldegira jo beharko dute eta han ikasiko dituzte pausoak.

Euskaraz jolasteko txokoak kiroldegian maiatzaren 14an

Gurasoek eta umeek elkarrekin jolasean euskaraz hitz egiten dutela ikusita, Udalak euskara bultzatu asmoz euskaraz jolasteko txokoak antolatatu ditu. Maiatzaren 14an, 19:00etatik aurrera kiroldegian hainbat txoko ezberdin ipini eta gurasoek eta haurrek elkarrekin jolastu ahal izango dute. Umeek ezingo dute bakarrik joan. Bestalde 2 eta 3 urteko umeendako txoko berezia egongo da. Jolastu ondoren, afari-merienda egongo da, bertaratutakoek etxetik eramandako jatekoekin.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

Maiatzak 1, zapatua

15:00: Aritiketan-La Kokotxa

16:00: Makanaki-Komando Piperrak

17:00: Txapela-Vicios

EMAITZAK

Spias 4 - Komando Piperrak 6

Aritiketan 6 - Vicios 3

Makanaki 0 - Txapela 7



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale



Andra Mari plaza 2
Tel. 943 76 81 97
20690 Elgeta



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Mendizale
koadrila
Kanpanzarren

Udaberria sasoi paregabea da mendian ibiltzeko. Aurreko asteburuan bertan mendizalez bete ziren Euskal Herriko mendiak; egin zuen eguraldiarekin, lagun koadrila mordoa abiatu zen inguruko mendietara.

Bada, mendizaletasunarekin lotutakoa da, hain zuzen ere, oraingo astean dakarkizuegun erretratuak.

1972ko ekainaren 25ean ateratakoa da ondoko argazkia. Garai hartan, gaur egun ez bezala, jendea ez zen oso urrutira joaten horrelako irteerak egitera. Batez ere, inguruko mendietan ibiltzen ziren zaleak. Egun hartan ere ez ziren oso urrutira joan; Arrasateko Udalatx mendi tonorrera joan zen antzuolar lagun koadrila. Hain zuzen ere, Udalatxetik mendi buelta egin ostean, Kanpanzar gainean atera zuten argazkia.

Gaur egun ere mendizale izaten jarraitzen dute; aurreko asteburuan bertan, badakigu argazkian azaltzen diren batzuk mendian izan zirela.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak. Atzean, ezkerretik hasita: Juli Horri- llo, Jose Mari Iparragirre, Jose Mari Iturbe eta Alejandro Lakuntza.

Aurrean, ezkerretik hasita: Jose Mari Alkorta, Arantxa Lizarralde, Arantxa Iturbe, Kontxi Laskurain, Purita Arregi eta Lorentzo Laskurain.

Argazkia: Kontxi Laskurain.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrial
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

1.

Zein mendekoa da Arostegi jauregiko ate errenazentista?

- A/ XVI. mendekoa.
- B/ XV. mendekoa.
- C/ XIX. mendekoa.

2.

Nor izan da Pazkoetarako udalak deitutako kartel lehiaketako irabazlea?

- A/ Mari Paz Alustiza.
- B/ Aloña Larrañaga.
- C/ Mari Kruz Garcia.

3.

Non jaiotakoa zen urtetan Bergaran lanean jardun zuen Serafin Esnaola apaiza?

- A/ Pasaian.
- B/ Ataunen.
- C/ Errezilen.

BERGARAROSPETSUAK

Serafin Esnaola (I)


KOLDO PEREIRA

On Serafin Esnaola Errezilen jaio zen 1915ean. 1937ko uztailaren 2an ordenatu zuten apaiz, eta lehen meza Bergaran esan zuen hamabi egun geroago. Ekintza pastoralean buru-belarri aritu zen, alderdi sozialean eta kulturealean batik bat. 36ko gerra amaitu ondoren, klandestinitateko euskal kleroaren berregituraketan funtsezko papera bete zuen. 25 urtez aritu zen Bergaran apaiz lanean eta bitarte horretan itzala utzi zuen herri osoan.

1964ko ekainaren 7an iritsi zen Trintxerpetik Bergarara, "deserriratu" eta Bergarako azken apaiz lagunkide gisa. Bere auzotar eta eliztar izandakoek lagunduta eta "babestuta" iritsi zen hona. Horiek, dudarik gabe, gizon honen lan ona egiaztatzen zuten.

San Antonioko ermitaren ardura izan zuen eta lehen egunetik *sanantoniotar* bat gehiago izan zen. Apaiz eta eragile soziokultural gisa jardun zuen, auzoan ez ezik Bergara osoan ere. Euskararen bultzatzailea, Komenioko parrokia-etxean kokatu zen lehen Ikastolaren sorreraren alde lan bikaina egin zuen.

Errezilen jaioa, lehen meza Bergaran esan zuen Esnaolak, 1937ko uztailaren 14an



ARTXIBOA



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANE BLANCOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ane! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Masterreka** kalean. / Galde debalde: **1-B, 2-B, 3-C.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Pantene xanpua

300 mL.

3,49 €

581 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ARANZADI IKASTOLA

BATXILERGORAKO

AURRE-MATRIKULAZIOA

maiatzaren 3tik 7ra

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA
Osasun eta Natur zientziak
Zientifiko-teknikoa

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

- Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak
- Batxilergo ondoko ikasketa guztietarako prestakuntza
- Konfiantzan oinarritutako harremanak
- Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea
- Euskaraz bizi izaten aitzindari
- Ikasleentzako kultura digital egokia



ARANZADI
IKASTOLA



HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA

